

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

- 1 • Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra
- 2 • **PERTSONAIA**
Miquel Siguan
• **LABURRAK**
Ikastola berriak Iparraldean
• **OROIMENEZ:**
Bernardo Estomes Lasa
Jose A. Loidi
• **AGENDA**
AEK eguna Saran
- 3 • Hitzaro eta Lengua Viva berriro antenan
• Euskadi literatura sariak
- 4 • Euskarazko prentsa idatzari dirulaguntzak

EREMU URRIKO HIZKUNTZEI BURUZKO VII. NAZIOARTEKO BILTZARRA



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, 1996an Gdansk-en (Polonia) antolatutako VI. Biltzarrean hartutako konpromezuari erantzuteko, Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra du eratzekoa aurrean, Euskal Herrian. Biltzarrean gai nagusia honako hau izango da: Hizkuntza Biziberritzeko Saioak.

1999ko abenduaren 1etik 3ra izango da, Bilbon, Euskalduna Jauregian, eta bi arloren inguruan egituratuko da: Hizkuntza Biziberritzeko Saioetarako Eredu Teorikoak, eta Hizkuntza Biziberritzeko Saioak Nazioartean.

Biltzarreko lehen egunean, abenduaren 1ean, Hizkuntza Biziberritzeko Saioetarako Eredu Teorikoak aztertuko dira eta, bigarren nahiz hirugarren egunetan, saio praktikoak izango dira hizpide; besteak beste, Quebeceko, Kataluniako, Galeseko eta Euskal Herriko kasuak aztertuko dira.

Orotara, 5 hitzaldi nagusi, 10 komunikazio eta 30 poster eratu dira.

Honakoak izango dira hizlari nagusiak: Hizkuntza Biziberritzeko Saioetarako Eredu Teorikoak arloan, Joshua Fishman, Yeshivako Unibertsitatekoa. Hizkuntza Biziberritzeko Saioak Nazioartean arloan, berriz, Lluís J. Kataluniako Generalitatekoa, Colin Williams, Cardiffeko Unibertsitatekoa, Xabier Aizpurua, Eusko Jaurlaritzakoa, eta Jean-Claude Corbeil, Quebeceko Gobernuakoa.

Ondoko irudian agertzen dira Biltzarrean aurkeztuko diren komunikazioak. Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egin ahal izango dira hitzaldi nagusiak eta komunikazioak.

Abenduaren 3an, Biltzarra burutuko den egunean, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Ondorioz, zenbait ekitaldi izango dira Euskalduna Jauregian bertan, egunaren kariatara.

BILTZARREKO KOMUNIKAZIOAK

1991-09-01	1999-12-02	1999-12-03
<p>MIQUEL SIGUAN "Tipología de las situaciones de lenguas en contacto y posibilidades de recuperación de las lenguas marginadas"</p> <p>ROBERT DUNBAR "Language Rights in International Law: useful tools for Language Revitalisation"</p> <p>ERNEST QUEROL "Un nuevo modelo teórico para el estudio de la inversión de los procesos de sustitución lingüística: la teoría de las catástrofes"</p> <p>PATXI JUARISTI "Munduko hizkuntzei buruzko txostena"</p>	<p>PILAR LOPEZ "Offercat: indicadores sobre la oferta de catalán en Santa Coloma de Gramenet"</p> <p>WILSON MACLEOD "Gaelic in Scotland: a 'renaissance' without planning"</p> <p>IÑAKI MARTINEZ DE LUNA "Etorkizuna aurreikusten 1999 (Monitoring the future 1999): los adolescentes y el euskara en Euskal Herria"</p> <p>XABIER MENDIGUREN "Euskararen erakundeon kontseilua. Esperientzia bat, gogoeta eta etorkizunerako zenbait ondorio"</p>	<p>ALAIN LAUFFENBURGER "Diglossia in Alsace: Its role in language shift and in reversing language shift (RLS)"</p> <p>FRANÇOIS GRIN "Language Policies and Policy Evaluation"</p>



ZALDI ERO

laburrak

IKASTOLA BERRIA
URRUÑAN

Ikasturte honetan ikastola berria zabaldu dute Urruñan. Hainbat gorabehera eta gero, Herriko Etxeak ikastolari lur sailak uztea onartu zuen, euskarazko ikastegiak eraikuntza berria egiteko. 1995ean ireki zen ikastola Urruñan, haur eskola da eta aurtan, 2 eta 6 urte arteko 25 haurrek ikasiko dute bertan.

HIRUGARREN KOLEJIOA
DONAIXTIN

Bigarren hezkuntzako kolejio berria irekia du Seaskak Donaixtin. Maila honetako hirugarren kolejioa da, Ziburu eta Kanbokoaren ondoren. "Manex Erdozainzi Etxart" izena du eta Nafarroa Behereko eta Zuberoko ikasleak hartuko ditu bere baitan. Egun, 347 ikasle ari dira Iparraldean bigarren hezkuntzako ikasketak euskaraz egiten; horietarik 19 Donaixtin ariko dira.

agenda

AEK EGUNA SARAN

Urteroko jaialdia egingo du AEK-k urriaren 24ean. "Euskaraz jauntzi hadi eta haugi" izango du lema aurtan eta Saran izango da. AEK Egunaren arduradunek euskarak Iparraldean duen kinka larria gogoan izan dute. Jai eguna alaituko duen kanta, berriz, belaunaldi berriei eta hizkuntzaren transmisioak izan dituen etenei buruz ari da.

pertsoneia

MIQUEL SIGUAN

HIZKUNTZALARI KATALANA EUSKARAREN ALDE LANEAN



ZALDI ERO

Miquel Siguan Soler Bartzelonan sortu zen 1918an. Hizkuntzalari da eta Haur Psikologian eta Hezkuntza Zientzietan espezialista. Bestalde, hizkuntza politika eta hezkuntza elebiduna ditu oraintxe azterkizun handienak. Euskararen sarbidea irakaskuntzan nola egin ere aztertu izan du eta sortutako arazoei erantzuteko Siguanengana jo izan dute Euskal Herriko profesionalak. Ondorioz, honoris causa doktore izendatu zuten 1996ko udaberrian.

Miquel Siguan UNESCOren *Linguapax* Batzordekoa da eta Bilbon izan zen joan den udaberrian, batzorde horren egin zuen bilerara etorririk. Gure artean izan

da berriro oraindik orain, EHuko pedagogia irakasle Felix Etxeberriaren liburu baten aurkezpenean: *Bilingüismo y educación en el País del Euskara*. Siguanena da lan horretan ageri den hitzaurrearen egilea. Bertan, euskararen eza-gutzaz eta erabileraz galdera egiten dio bere buruari hizkuntzalari katalanak eta II. Mapa Soziolinguistikoan argitaratu emandako datuak erabili izan ditu erantzun bila. Siguanek ondorioztatzen duenez, bere burua euskalduntzat duten herritarren kopurua -hau da, euskaraz eragozpenik gabe hitz egiteko gai direnena-, hazi egin da azken aldirian, eskolaren eraginez batik bat. Hori horrela izanda ere, ordea, herritar horiek ez dute euskara ohiko hizkuntza, eta ez dute beren haurren ama-hizkuntza egiten. "Beharbada, famili giroan elebitasuna nagusituko da eta, horrekin batera, elebitasun goiztiarra. Egoerak azterketa zehatzagoa behar du, dena den".

Urte burutu baino lehen atzera Euskal Herrian izango dugu Miquel Siguan, Eredu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra bitarte. Inondik ere, euskararen alde urte askoan egin duen lanari eskertzeko garaia izango da.

gogoan

BERNARDO ESTORNES LASA
(1907-1999)

Azabuztu hil zen Bernardo Estornes Lasa. Izaban jaio zen 1907an. Euskal historiari buruzko hainbat lan burutu zuen: *Historia del País Vasco*, *Mapa de Navarra*, *Orígenes de los Vascos* eta *Antología Literaria vasca*. Euskaraz ere idatzi zuen eta lan horien artean dira, adibidez: *Erroñkari*, *Euskal-dazlastera* eta *Sabin euskalduna*. Dena dela, Auñamendi entziklopedia da, dudarik gabe, bere lanik handiena: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. 60 liburuki baino gehiago argitaratu dira bilduma honetan.

JOSE A. LOIDI
(1916-1999)

Jose Antonio Loidi ere udan hil zen. "Amabost egun Urgain'en" lan historikoaren egilea Erreterian jaio zen 1916an, botikario izan zen lanbidez, baina euskarazko polizi nobelari hasiera eman zion eleberria idazteak eman zion izena. "Amabost egun Urgain'en" beste libururik ez zuen argitaratu, 1955ean, eta egun arte 10 argitalpen baino gehiago izan ditu.

Euskadi Literatura Sariak



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak jakinarazi ditu aurtengo Euskadi Literatura Sarien irabazleen izenak. Anjel Lertxundiren “Argizariaren egunak” izan da euska-

razko sariduna. Andoni Egañaren “Pausoa noiz luzatu” nobelak irabazi du Zabalpen saria. Bernardo Atxagak jasoko Gaztelaniazko lanik onenaren Euskadi saria, “Lista de locos y otros alfabetos” liburuarengatik. Juan


Garziak irabazi du Itzulpen saria Borges “Ipuin hautatuak” lanaren bidez, eta Juan Kruz Igerabidek bereganatu Haur eta Gazte Literaturaren saria, “Jonas eta hozkailu beldurtia” ipuinaz. Zorionak denoi.

HITZARO/ LENGUA VIVA

BOSGARREN ALDIAREN ATARIAN

Udako oporrak amaiturik pantaila txikian dira berriro euskarari buruzko bi telesaioak. Hitzaro-k eta Lengua Viva-k bosgarren denboraldia izango dute ETBko programazioan eta agindu dituzte urte bukaera bitartean ikusi ahal izango ditugun zenbait erreportaje eta elkar hizketa. Tartean dira, esaterako, honako gaiak: Udako barnetegiak, Durangaldeko Lanbide Heziketa Institutua, Gabriel Arestiri buruz Bidebarrieta Kulturunean egin duten erakusketa, Iparraldean ireki berri dituzten ikastola berriak, Euskararen Aholku Batzordea, Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra, Euskadi Literatura Sariak... Elkar hizketatuen zerrendan ageri dira, berriz, Felix Etxeberria EHuko Pedagogia irakaslea, Miquel Siguan hizkuntzalari katalana, Jose Angel Iribar kirolaria, Odile Kruzeta Euskadi Irratiko zuzendari berria, e.a.

Astebururo dira ikusgai bi saioak, eguerdi aldean: larunbatean Hitzaro, euskaraz, eta igandean Lengua Viva, gaztelaniaz, eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren babesarekin.





EUSKARAZKO PRENTSA IDATZIAREN TANTAKO DIRULAGUNTZAK

Kultura Sailak prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak erabaki ditu.

Dirulaguntzak euskarazko eguneroko zein aldizkako argitalpen-mota hauen artean banatuko dira:

- A:** Euskararen esparru geografikoko eguneroko prentsa.
- B:** Astekariak.
- C:** Euskararen esparru geografikoko haur eta gazte aldizkariak.
- D1:** Euskararen esparru geografikoko eta 10.000.000 PTatik gorako diru-sarrera propioak dituzten bestelako aldizkariak.
- D2:** Euskararen esparru geografikoko eta 10.000.000 PTatik beherako diru-sarrera propioak dituzten bestelako aldizkariak.
- E1:** EAEko herri eta toki mailako aldizkariak 5.000.000 PTatik gorako gastuen aurrekontua dutenak.
- E2:** EAEko herri eta toki mailako aldizkariak 5.000.000 PTatik beherako gastuen aurrekontua dutenak.
- E3:** "e" multzoko aldizkariak aurkeztutako bideragarritasun-planerako edota ohiko funtzionamendutik kanpoko proiektuetarako 500.000 pezetako kopuruak.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

	1998	1999
A	Euskaldunon Egunkaria156.000.000	156.000.000
B	Argia17.500.000	26.000.000
	Herria500.000	2.000.000
C	Ipurbeltz7.160.000	8.750.000
D1	Elhuyar7.520.000	10.894.359
	Jakin9.453.673	10.364.000
D2	Bertsolari2.309.644	2.370.267
	Entzun400.000	
	Karmel1.385.463	1.257.065
	Hegats1.552.000	1.557.000
	Bat2.232.343	2.232.386
	Egan1.371.000	2.030.218
	7 Baitez!1.650.000	2.708.755
	Euskerazaintza780.000	
	Naparthaid730.000	635.000
	Ostiela1.836.239	1.832.180
	Uztaro1.560.000	1.600.000
E1	Aretxagazeta681.094	374.752
	Arrasate Press1.975.233	2.489.405
	Irunero318.573	226.720
	Bizarra Lepoan280.000	
	Irutxulo2.819.616	3.389.404
	Eraz1.367.000	1.365.000
	elgoiBARREN1.804.452	2.200.000
	... eta kitto!1.807.482	2.438.908
	Galtzaundi1.300.000	1.426.000
	Geu Gasteiz915.200	1.000.000
	Goierritarra1.200.000	1.350.000
	Berrigara2.116.054	2.520.000
	Aiurri638.334	
	Lau Haizetara540.000	490.280
	Noaua!725.000	800.000
	Txintxarri875.000	968.000
E2	Arranondo847.664	850.000
	Berton987.000	
	Deiadar280.000	
	Goibekokale175.000	300.000
	Drogeteniturrri934.014	901.273
	Akatz925.000	925.000
	Karkara900.000	900.000
	Maxixatzen270.000	600.000
	Orratz!726.294	
	Otamotz500.000	500.000
	Baleike500.000	650.000
E3	Arko-Gunepress publizitate agentzia500.000	
	Dena-Auto publizitate gehigarria500.000	
	Noaua! eta Irutxulo aldizkarien arteko elkarlan egitasmoa500.000	
	Euskal Herriko Betiko Errezetak500.000	
	Reala-Alaves derbiari buruzko kirol-argitalpena500.000	
	Irutxulo eta Gaztetxuloren kudeaketa planak garatzeko lan-proposamena500.000	
	Publizitatea kudeatzeko proiektu edo plan berria500.000	
	Durangaldeko Historiari buruzko bilduma500.000	